

Lanaren inguruko balioak Pasaiaiko arrantzaleen komunitatean

(Work-related values in the Pasaia fishing community)

Pérez Aldasoro, Pío

UPV/EHU. Tolosa Hiribidea, 70. 20018 Donostia

pio.perez@ehu.es

BIBLID [1137-439X (2007), 29; 53-63]

Jaso: 05.11.14

Onartu: 06.11.06

Ingurunearen eta jardueraren beraren baldintzei emandako erantzun kulturalak dira Pasaia arrantzaleen komunitatean nagusi diren balio sozialak. Balio horien artean kontuan hartu dugu Pasaia arrantzaleek beren unibertso kulturean lanaz duten iritzia, zeren eta horrek hausnarketa bat baitakarkigu bizimoduez, erritmoez, lan baldintzez eta lanaldietan edo lan istripuetan horiek dituzten ondorio zuzenez.

Giltza-Hitzak: Arrantzaleak. Lana. Balioak.

Los valores sociales dominantes en la comunidad de pescadores de Pasaia resultan distintas respuestas culturales a los condicionamientos del medio y de la propia actividad. Entre estos valores hemos tomado el concepto que sobre el trabajo tienen los pescadores de Pasaia en su universo cultural, ya que nos aporta una reflexión sobre los modos de vida, los ritmos, las condiciones de trabajo y sobre las consecuencias directas en las jornadas o en los accidentes laborales.

Palabras Clave: Pescadores. Trabajo. Valores.

Les valeurs sociales dominantes dans la communauté de pêcheurs de Pasaia sont des réponses culturelles différentes aux conditionnements du moyen et de l'activité propre. Parmi ces valeurs nous avons retenu le concept que les pêcheurs de Pasaia ont sur le travail au sein de leur univers culturel, puisqu'il nous apporte une réflexion sur les modes de vie, les rythmes, les conditions de travail et sur les conséquences directes sur les journées ou sur les accidents du travail.

Mots Clés: Pêcheurs. Travail. Valeurs.

SARRERA

Itsas Antropología V jardunaldi hauetara aurkeztu nahi dudak komunikazioak nire doktorego tesiaren atal bati ekin nahi dio, hain zuzen ere, lanaren kontzeptuari eta arrantzaleen artean ematen diren lanaren inguruko balioei, eta gai honen inguruan sortu zaizkidan burutazio metodologikoak. Doktorego tesiak Pasaiaiko arrantzaleen gizarte eta lan munduko harremanak aztertu nahi zituen, hau da, nire asmoa zen ikertzea Gipuzkoako herri batean nola gauzatu den arrantza jarduera eta lanbide horrek zein ezaugarri gizarteratzen dituen, aktore sozialen ikuspuntutik edo iritziak kontutan hartuta.

Izan ere, aurreko mendean zehar aurrerapen teknologiko eta ekoizpenerako hobekuntzak gora joan direla nabaria da eta aurrerapenak baliabide berrien atzetik joatea behartu du arrantzalea, honek jakin izan du lan prozedura eta teknikak garai berrietara egokitzen ekoizpen hobea lortu ahal izateko. Aldaketa honen eredia da arrantza tipologiak igarotze historikoarekin batera izan duen bilakaera, eta erakusten du, bestalde, arrantzaleek badutela itsas-baliabideak agertzen duen muga naturala gailentzeko joera.

Pasaiaiko arrantzontzietan garatu diren modalitate ezberdinak mendeetan zehar arrantzaleek eskuratu dituzten jakintza eta ezagupenei esker izan dira. Modalitate hauen elementu anitzak (ekoizpen bideak barne) egokituak izan dira ingurunera eta baita baliabideen ezaugarrietara. Hau da, modalitate ezberdinak ezartzeak baimendu egin du arrantzalea itsasora irten dadila eraginkortasun bermearekin.

Bilakaera honetan arrantzan eman den kapitalismoaren sarrerak ezin izan du beregain hartu ekoizpen faktoreen multzo osoa, kapitalismoaren eraginik garrantzikoena, gure ustez, teknologia arloan kokatu beharko genuke, zeren ekoizpen indarrek elementu osagarrien kontrol eta planifikazioan gelditu baitira. Kapitalismoaren ezarrera mugatu da, batez ere, ekoizpen indarren kontrol eta egitasmo ez osora.

Ekoizpena naturaz baliatzeko gizakiak egiten duen jarduera da eta inplikatzeko du, lana eta tresnen bitartez, natur baliabideak eraldatzea produktu erabilgarriak lortu ahal izateko. Ingurunea eta teknologia sozialki ekoizpenei esker osatzen dira, ekoizpenean ezartzen diren harreman sozialak lan prozesuetan garatuz.

Jakina denez, gaur egun mendebaldeko lurralde garatuetan lanaren errealitatearen inguruan sortzen ari diren aldaketei buruzko eztabaida politiko eta akademikoa ari da egiten. Eztabaida honek hartzen ditu gai anitzak: lana ulertzeko modua, lanaren krisia, lanaren era ez merkataritzakoak, soldatapeko lanaren aldaketak, eta abar. Literatura kopuru oso handia da eta adostasun bat atera daiteke: lanaren kontzeptua birpentsatu eta zabaltzeko behar dela.

LANAREN KONZEPТУAREN INGURUAN

Lana da gizakiok bizitzan zehar egiten dugun jarduerarik garrantzitsuenetakoa. Lanaren bitartez gure biziraupena bermatzen dugu eta gure egitura soziokulturalak, pentsamenduzkoak eta oinarri materialak birsortzen ditugu, horregatik lanaren inguruan giza eta gizarte balioak islatzen dira oso garbi (Braudillard, 1973). Orduan, lana kategoria antropologikoa hartzen du, giza izaeraren inbariantea eta bere arrastoa toki eta garai guztietan aurki daiteke. Azken finean, lana norberaren errealizazioa errazten du eta gizarte loturaren oinarria da.

Orduan lanak, bizi esperientzia partikularra denez, zailtasun asko agertzen ditu azalpenerako, bere esanahiak besarkatzen dituen alderdiak eta ertzak hain zabalak eta zorrotzak izanik, ezen espazio eta denboraren zehar definitzea debaldeko ariketa suertatzen baita askotan (Aizpuru, Rivera, 1994).

Esanahia mugatzeko dauden zailtasunez gain, lanaren kontzeptuari gehitu beharko genizkioke historian zehar baldintza sozio historiko, politiko zein ekonomikoek kontzeptuaren baitan eragin dituzten aldaketak (Marin, 1993). XXI mendearen atari honetan gaiari buruz dugun iritzia ez du ezer ikustekorik gure arbasoek zutenarekin. Gauza bera esan daiteke lanari buruz munduko kultura ezberdinetan duten balorazioarekin, zeren lanaren kontzeptua soziokognitiboki eratuta baitago, eta bere errealitateak lotura zuzena eta estua du kultura eta gizartearekin.

Dena den, lana da gizakiok bizitzan zehar egiten dugun jarduera garrantzitsuenetakoa. Lanaren bitartez gure iraupena bermatzen dugu, giza baloreak islatzen dira eta bere baitan egitura soziokulturalak, pentsamenduzkoak eta oinarri materialak birsortzen ditugu (Braudillard, 1973; 23).

Hauetz gain, lanaren kontzeptuak zenbait hausnarketa bide eskaintzen ditu:

Lehenengoz, lanak gizabanakoari eskaintzen dio integrazio modua, eta, era berean, bizitzari koherentzia eta esanahia eman diezazkiguke. Hau da, lanbidearen bitartez, pertsonak euren bizitzari zentzu eta estima gehi diezazkiete, gizabanako sortzaile bihurtua. Funtzio hau lana asetzaileraren denean betetzen da.

Bigarren, lana identitate pertsonalerako bidea da. Neurri batean, lan esperientziak identitate pertsonala konfiguratzeko dute, klaseetako antolamendua ezartzen eta hierarkizazioa bultzatzen du.

Hirugarren, lanak pertsonen denbora egituratzen du, egunak, asteak, arrantzaleen kasuan itsasaldiak, kanpainak eta abarreko sailkapenetan, alegia. Denbora egituraketa honek bizitzaren alderdi desberdinetan islatzen da; hala nola: familiaren barneko antolaketan, oporraldietan eta abarretan. Ondorioz, lanak gure bizitzari erreferentzia marko erabilgarria eskaintzen die.

Gizabanakoaren alorrez gain, lanak ere badu gizarteko dimentsio bat. Bertan, aipatu beharra dago, besteak beste, lanak subjektuari estatus eta prestigio

soziala eskaintzen dizkiola. Bestaldetik, gure bizitzaren atal handiko interakzio multzoa lanaren inguruan garatzen dugu, gizakiarentzat harreman mailan garrantzizko funtzioa betetzen baitu. Izan ere, gure gune familiarretatik kanpoko beste pertsonekin harremanak mantentzeko aukerak eskaintzen dizkigu, harreman sozial eta interakziorako aukeren iturria da.

Azkenik, lanak arau, sinesmen, zein mota desberdineko sozio itxaropenak helarazteko funtzioak betetzen ditu. Pertsonak, lanean edo lanaren bitartez, elkarrekin komunikatzen dira eta komunikazio horren fruituak dira, besteak beste, gizarte ideiak, sinesmenak eta gizarte baloreak besterenganatzea. Baina jakina denez, gizarte ideiak eta sinesmen hauek ez dira bakarrik lanarekin lotuak, bizitzaren beste ataletatik informazio desberdinak ere jasotzen ditugu.

Halaber, uste dugu zenbait lan prozesuk sortzen dutela identitate soziala lan jarduera partekatzen duten langileengan, hau da, lan prozesuaren oinarrian sortzen den identitate soziala egituratua dago lanbide identitateaz. Identitate mota hau adierazten da ezaugarri kultural batzuen bitartez, eta hauek, lanbideak eskatzen dituen ezagupen multzoaz gain, ekoizpen prozesu zehatz batean parte hartzean jasotzen dituzten ideia, balorazio eta hautemate multzoak dira.

Azken finean, bizipen horiek mundua ulertzeko era bideratuko dute, bere identitatea aldatuz eta ekintza sozialak bultzatuaz.

PASAIKO ARRANTZALEAK ETA ARRANTZAGINTZA

Pasaiako arrantzaleek ez dute talde edo komunitate homogeen eta bateratua osatzen, baizik eta maila ezberdinetan hierarkizatutako taldea da, non euren interesak kontrajarriak baitira une askotan eta diferentzi ekonomiko eta sozialak nabarmenak baitira. Hala ere, komunitate edo talde izaera lanetik datorkie, arrantzan aritzeak ematen baitie batasuna.

Zentzu orokorrean, "arrantzale" hitzak arrantzontzietan enrolatuak diren pertsona guztiak izendatzen ditu, kategoria soziala desberdindu gabe. Izan ere, "arrantzalea" hitzarekin arrantzaz edo baserriaz edo lantegiko lanez bizi den pertsona kontrajartzen da. Orduan esan dezagun arrantzalea arrantza lanbidea duen pertsona orori egokitzen zaiola, kategoria profesionala ezberdindu gabe. Baina, arrantzontzi barnean tripulazioko edonor arrantzaleari zuzentzen bazaio, kargurik gabeko ontzikide bati egiten dio erreferentzia. Azken hau armadore, patro, makinista edo kontramaisua karguari kontrajarriaz.

Arrantzale gehienek errepikatzen dute bere lana astuna eta gogorra dela. Hala eta guztiz ere, euren gustukoa dela entzuten daiteke noizbehinka, nolabait harrapatu aurkitzen direla, beste enplegurik aurkitu ez dutelako, ez dakitelako beste lanik egiten, edo familiaren tradizioa eta ondasunarekin jarraitu behar dutelako. Arrantzale gehienek itsasoarekiko eta langintzarekiko sentimendu kontrajarriak agertzen dituzte; amodio-gorrotzkoak, errespetuzkoak eta beldurrezkoak, besteak beste. Azken finean, arrantzaleek askotan adierazten dute itsaso-

ak xarma berezia duela, baina bere baitan ondo dakite itsas ingurunean hainbat eta hainbat arrisku eta segurtasun gabezia gorderik daudela eta horregatik itsasoari zor diote errespetua.

Lana eta esfortzuari buruz arrantzaleen adierazpenek Pasaiaiko arrantza komunitatearen ikuskera osatzen dute, baita balore sistema ere. Balore sistema hau arrantzaleen ekintzen aurreko gora beherak bideratzen dituen araudi ideala da, jarrera erdua. Izan ere, lanaren kontzeptualizazioa aktoreen bizipen eta motibazio multzoak laburbiltzen ditu eta, neurri berean, desio, sentimendu, gogo eta gizarte egiturari buruzko zenbait jarrera.

LANALDIAK

Arrantzontzietako lan antolaketa oinarrizko helburu baten inguruan zertzen da: ahalik eta gehien harrapatu denborarik laburrenean. Izan ere, zatika sistemapean aritzen diren baxurako arrantzaleen egitekoak arestiko helburua indartzen du: somara lan egitea. Altuera eta altuera handiko arrantzontzietan, berriz, gutxieneko soldata bermatua badute ere, ordainketa sistema zatikakoa da, edo antzekotasun asko agertzen du baxurako lan antolaketarekin. Arrainketa sistema hauetan arrantzaleek eta arrantzontziko agintariek (arrantzu patroiek, batez ere) harrapatutakoaren arabera diru portzentajea kobratzen dute, eta orduan agintariek denborarik laburrenean ahalik eta gehien harrapatzearen helburua aplikatzen dute, ontziko armadoreen asmoak beteta.

Lan filosofia hori dela eta, jardunaldi arautegiak bete ez izateko baldintza antz ematen dira, lanaldiari dagokionean, behinik behin.

Indarrean dauden lan arautegiak Lanaldi Bereziei Buruzko Dekretua (E.D. 1561/1995) artikulua batean (8.2 eta 16.1 artikulua) diote itsasoan eguneko lanaldiak ezin direla 12 ordutik luzatu, ez bada ezinbestekak bultzatuta. Ezinbestekak honek (istripuren batek, sarea uretan murgilduta egoteak eta beharra bukatu gabe izateak eta antzeko besteak) atea irekitzen die gehiegikeriei eta, orduan, ohikoena da lanaldia 12 ordutatik gora luzatzea. Dekretuaren beste atal batek dio lanaldi baten bukaeratik beste lanaldira gutxienezko atsedena 6 ordutakoa izan behar duela. Hau ere behin baino gehiagoetan ez da betetzen.

Sindikatu batek 1999an egindako txosten baten arabera, Pasaiaiko arrantza alorrean asteen landutako ordu kopuruaren batz bestekoa 86,5 ordutakoa izan zen. Ordu hauek honela banatzen ziren: altuerako arrantzan pertsona bakoitzeko landutako ordu kopuruaren, batz beste, 93,5 ordutara igotzen zen asteen, baxurakoa baino zertxobait altuagoa. Baxura arrantzan ordu kopurua 80,5ekoa zen. Ordu zenbaketatik kanpo geratu ziren lehorrean egindako derri-gorrezko atsedena, eguraldi kaskarrak, motorren matxurak eta beste ezbeharrak.

Oro har, itsasoan landutako ordu kopuru hauek lehorrean lantzen direnekin alderatzen badugu, arrantzaleen lanaldia %90eko luzeagoa dela aurkituko dugu.

Ohartzekoa da ere itsasoan sarturiko aparteko ordurik ez direla ordaintzen lehorreko edozein enplegutuan ordaindu behar den bezala.

Landutako ordu kopuruez gain, itsasoko lanaren gogortasunaz ohartzeko lan izaeraren beste alderdi batzuk ere kontuan hartu beharko genituzke, adibidez, lanaren erritmoa, esfortzua intensitatea eta lanaldietan dauden atsedena-ldiak.

LANA ETA ATSEDENA

Lanari dagokionez, lanaldiak arrantzaren arabera izaten dira, ez dute ordutegi finkorik lanean hasi edo lanari uzteko, ez eta ere atsedenerako. Itsasoan, ohikoa da egun osoz adi egotea ibiltzea eta litekeena da gaueko ordu txikitant esnaturik egotea. Sarea, palangrea edo bestelakoa uretara bota baino lehen prestaketa beharrezkoa da. Atontze lanaren ondoren aparailua uretara botatzen da eta denbora tarte baten ondoren jasotzea berriro. Arrantza motak markatuko du arrantzaldiak zenbat iraungo duen. Behin aparailua ontzian dagoela harrapatutakoa prestatu eta biltegian gorde behar dute. Batzuetan, jarduera hiruzpalau aldiz errepikatu behar dute, behin eta berriro, honela 10, 14 edota 20 ordutako lanaldiez, Normalean, harrapatu edo detektatutako arrain kopuruaren arabera izaten da. EParen datuen arabera %50 baino gehiagok astean 50tik gora ordu lan egiten dutela¹.

Hori dela eta, atsedenez gozatzeko uneak edo bestelako beharrak tartekatuta behar dituzte lanarekin ahal dutenean. Otorduek edo lo uneek ez dute ordutegi finkorik, askotan bazkalorduen edo lo gozoaren erdian esnatu eta jaiki behar dute.

Itsasoan bizitza arrantzontziaren espazio txiki eta hertsitik baldintzatuta dago erabat. Arrantzontzia arrain kopuru handiena gordetzeko egokituta dago eta, beraz, biltegiek hartzen dute espaziorik gehiena. Modu berean, diesel makina edo aparailuak erabiltzeko makinatxoak, haztegiak, kasu batzuetan, hartzen dute beste hain beste, eroso egoteko lekurik asko murrizten da.

Ontzia da bizitza eta lan lekua, ez dago ezberdintasunik bi espazioaren artean, horrela ontzia da “erabateko erakundearen” ezaugarriak (Goffman, 1972): monotonia, inkomunikazioa eta harreman hondatzea. Hiru ezaugarri horiek laburbiltzen dira gizabanakoaren hondatze psikologikoan eta taldearen desegituraketa.

Lantokia bizilekua da, lana kudeatzen duen gizarte erakundeak lanarik gabeko uneak ere arautzen ditu. Hierarkia lanean zein aisialdian islatzen da.

1. Informe y Propuestas sobre la aplicación de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales al sector marítimo.

Itsasoko langileak ez du lehorrekoa bezala lanaren ondorengo psikologikoki entretenitzeko aukera, erretiratzeko lekua.

LAN ISTRIPU ETA ERITASUNAK

Arrantzontzian jasaten diren lan baldintza gogorrek zenbait gaixotasun, lesio eta narriadura fisikoren agerpena errazten dute eta hauek askotan arrantzaleen lanetik erretiro goiztiarra azkartzen dute.

Jardueraren izaera berak eragiten ditu, neurri handi batean, istripu eta eritasunak.

La pesca tiene lugar en un entorno natural y social incierto y arriesgado. Las condiciones meteorológicas adversas tienen y producen hundimientos y averías en los pesqueros, pérdidas de vidas humanas y de días de trabajo. Este entorno incierto y peligroso incrementa el número de accidentes laborales, de enfermedades de gente dedicada a la pesca (Sánchez Fernández, 1993; 498).

Arrantza ontzietako lan baldintza eta segurtasunari buruzko II jardunaldietan L. Dutailly, EBko osasun eta segurtasunaren batzordearen buruak esan zuen, estatistika fidagarriarik ez badaude ere, zenbait seinalek adierazten dute arrantza dela istripu kopurua handiena duen lan sektorea. Europako batasunean 1 eta 4 hildako milakoen artean, hau da meatzaritzarekin edo eraikuntzarekin alderatzen badugu 10 aldiz handiagoa.

Arrantzaleek pairatzen dituzten gaixotasun arrunten eragina, bederen, arnas bideetan agertzen da (besteak beste, bronkitis asmatikoa, sinusitisa, eta bronkoneumoniak), ordu luzeetan blai egoten baitira. Baita lokomozio aparatuan ere ugariak dira (artrosia, lunboziatika, lunbozialgia, lunbalgia akutua, hernia diska-lak eta antzekoak) esfortzuak eta hezetasunak hezur eta artikulazioen arerioak baitira. Era berean, lixari aparatukoak ohikoak dira ere (kolitis, lixari hemorragia, gastritisa, errektorragia).

Halaber arrantzaleek itsasoan lan istripu eta lesio anitz nozitzen dute.

En cuanto a accidentes y siniestros, la actividad pesquera sigue siendo una de las actividades más peligrosas (Battersby, 1988; 349).

Hauen artean, ohikoenak, arrainen hozkadak, amu eta arantzez egindako zauriak, begi lesioak, hezur hausketak, makadurak eta traumatismoak. Torax, esku edota oinetan, bihurrituak eta luxazioak.

Temperatura aldaketa bat-batekoak eta baldintza meteorologiako latzek (temperatura baxuak, alde batetik, eta hezetasun handiak, bestetik) arnas gaixotasun kronizitate joera areagotzen dute. Zama garraiaketa eta arrantzontziaren kulunkak lokomozio aparatuan lesioak eragiten ditu. Otordu desegokiak estres egoeretan eta dieta desorekatuek, hau da, zuntz edukietan urria, idorrieria ekarri

eta lixari aparatua hondatzen dute eta, ondorioz, arestian aipatutako gaixotasu-
netan bilakatzen dira.

Esfortzu luzea eta atsedean ez egokiak nekea dakarte eta ondorengo aditasun
falta, orduan lan istripuak errazten dira.

Istripu kopurua eta lan gaixotasunek agerian uzten dute arrantzaleen lan bal-
dintza eta langintzaren zailtasuna. Guzti honi gehitu behar zaizkio, beste lan
mota edo lan egoerarekin alderatuz, arrantzaleen lan erritmoa eta lanaldien luze-
rak, biak oso nekagarriak izaten baitira.

Orokorrean, tripulazioak larrialdiak pairatuz gain, arrantzontzian deserotasun
fisiko eta psikikoak ere jasaten ditu. Besteak beste, espazio eta intimitate per-
sonalaren eskasia, arrantzontziaren kulunka iraunkorra, familiarik bereziak
egon beharra tarte luzetan, lanaldiak ordutan luzatuak, atsedendaldi ez nahikoak,
higiene eta osasun baldintzak ez egokiak eta abar.

Oro har, Pasaiako arrantzaleek uste dute bere lana “lotura eta esklabutza
handiko” jarduera dela, desosegu eta atsekabea sortzen baitizkie. Era berean,
“arrantza eta meategietako lana lanik okerrenea direla” deritzote.

LANAREN BALORAPENA

Kristautasunaren ezarrerarekin europar mendebalde osoan judutar herriaren
tradizioa eta baloreak zabaldu ziren. Tradizio honetatik lan neketsua eta gogo-
rraren balorea, zeina lehenengo gizakiaren portaera maltzuraren ondorioz etorri
baitzen. Adanek, Yavheren aginduak bete ez izatearren zigorra jaso zuen eta
ordudunik ogia eta bestelako elikagaiak izerdiaz lortu behar zuen, hau da, lana
egin behar zuen bizi ahal izateko. Horrela, tradizio judutarrak lan gogorrari giza-
ki-askatzaile faktorearen kategoria eskaintzen dio, era berean, gizakia alferkeria-
tik, bizio guztien iturburuetatik, uxatzen du. Tradizio honi jarraiturik, lana bilaka-
tuko da bertute guztien iturburu, gizakiaren onerako.

Pasaiako arrantzaleen egitura ideologikoan, lanak esangura positiboa har-
tzen du. Konnotazio positibo horrek gizaki saiatuaren irudia idealizatu egiten du,
zeren eginahalean areagotzeak ingurune edo gizarte egoera desegokiei aurre
egiteko bidea ematen baitu. Egitura ideologiko honen barnean, erresistentzia,
eragozpen aurkako sendotasuna, zorrotza izatea, ahaleginean aritzeko gogorta-
suna, kuraia edukitzea eta adoretsua izatea itsaskarien artean estima handiko
baloreak dira. Oro har, lana eta esfortzuaren idealizazioa arrantzaleen buru esti-
ma asetzen du.

Orokorrean arrantzaleek erakusten dute langintzari eta bertan saiatzeari atxi-
kimendua eta zaletasun aparta. Esaten dute arrantza saiatua euskorra izan
behar duela lanean eta egoera zailen aurrean ez duela amorarik eman behar.
Izan ere, eginahalean eustea da arrantzaleak duen baliabide bakarra edo baka-
rrenetarikoa bere langintzan. Inguru arriskutsu, desegur eta konpetitiboa gutxia-

gotzeko edo inguru horri aurre egin ahal izateko arrantzaleak bere trebeziak eta lan gogorrez baliatu behar du. Orduan, arrantza trebeak bere burua saiatua eta euskorra eduki behar du itsasoan aritzen den bitartean.

Hori dela eta, itsasoko jendeak itsasoan arrakasta edukitzea lanarekin, sakrifizio, neke eta bertutedun bizitzarekin lotzen ditu. Patroi gehienek, behin eta berriro, diote bere arrakasta ekonomikoa edo egungo ongizate soziala bizitza deseroso eta lan nekagarrian dagoela. Patroia postua lortu ahal izateko meritua egin behar direla, lanean ahalegindu etengabe, okerrak jasan, hitz gutxitan, itsasoan aritzea zer den badakiela demostratu.

Itsasoan arrakasta lortzen duen patroiak borrokalari eta pertsona saiatuaren ospea du, kuraia eta ausartasunez jokatzeko baitu. Gaur egun Pasaian aritzen diren patroik gehienak, gaztetatik, 13-14 urterekin itsasoan hasiak dira. Hierarkia beheko postuetatik joan dira ofizioa bereganatzen, beste arrantzaleengandik ikasia, egun duten posizio eta prestigio sozio-ekonomikoa eskura ahal izateko. Honengatik, bizitza, eta ondorioz, osasuna ere itsasoan galdu dutela diote; euren iraganaldia arrisku, zailtasun eta gabetasunez markaturik aurkitzen da. Euren usteetan, bada, arrakasta, prestigioren azken azalpena esfortzuan areagotzean datza.

No obstante entre las cualidades del buen pescador se incluye la suerte. El buen pescador no se lo debe todo a ella. La suerte hay que buscarla, tentarla o merecerla. Se le puede pedir a la Virgen, pero sólo quien reúne las demás cualidades del buen pescador, posee ésta a su vez. El espíritu cooperador, la inclinación al trabajo, la constancia, la fortaleza, la salud y una situación familiar adecuada son condiciones para merecer la suerte (San Martín, 1982; 61).

Lanari buruzko honelako ikuskera edukitzeak bizipen eta erreakzio positiboak sortzen ditu arrantzaleengan. Dena den, pertsona oro kontzeptuari edo idealizazioari dion atxikimenduaren arabera baloratuko du. Lan kontzeptua, orduan, bizitzaren aurreko jarrera bailitzan aztertuko du, oinarri moral bailitzan.

Dena dela, arrantza gazteak lanaren kontzeptualizazio hau desmitifikatzen ari dira, ez baitute gazteak kontsideratzen lana eta esfortzuak mobilitate soziala edo aberastasun estrategiak direla. Euren iritzian arrantza gizartearen pentsaera, balore sistema eta lanbidearen egitura aldatu beharra dago, garai berrietara egokituz. Arrantza gazte gehienentzat itzarobidea diru lortzean zentratzen da kontsumo azkarrerako, hots, lan egin dirua irabaz dezaten. Arrantza gazteak aisialdia, lagun giroan egotea eta bizitza gehiago estimatzen ditu, lankortasunari kasu handirik egin gabe. Lankortasunak edo lanean saiatzeak, euren ustez, ez du balore moralik ordezkatzeko, soldata lortzeko bitartekoa besterik ez da.

Arrantza edadetuek uste dute gazteak ez dutela ardua posturik nahi, adibidez, ontzi jabegoari edo patroia izateari ihes egiten dietela. Badaude patroik titulua duten gazteak ardua ez edukitzearen patroia postuari uko egiten dietela. Lehorrean daudenean itsasoko gabetasunez ahaztu nahi dira, itsasoak asko bal-

dintzaten baititu euren bizierak. Era berean, edadetuak kezu dira zeren patroia-ri askotan gazteek aurre egin edo kritikatzan diote.

Belaunaldi, eta honekin batera zenbait pentsaeran aldaketa eman bada ere Pasaiaiko arrantzale komunitateak lanaren kontzeptua ideal etikoa dela kontsideratzen jarraitzen du. Arrantzalearen pentsaerak daramatza lanaren balorazio positiboa eta aisialdiaren balorapena, berriz, ezkorrean ikusten dute.

Jendearen artean esan ohi da itsasoan arrakasta nahi duen edozeinek itsasoan saiaturia izan behar duela. Arrantzaren ziurtasun ezari aurre egin diezaioten, arrantzaleek duten bidea lankortasuna da, honek estrategia moldagarri balitz funtzionatzen du, ingurune aldakorra eta desatsegina ekiditeko bidea, alegia. Testuinguru honetan lanari ematen zaion garrantziak etorkizuna itxaropentsu eta konfiantzaz hartzeko ahalbidetzen du; arrantzale eta ingurune artean dagoen harreman estua lan saiatuarengatik baldintzatua egonik. Arrantzale munduan lanari ematen zaion garrantzi kulturala koherentea da.

Era berean, lanaren saiakuntzan areagotzeak arrantza enpresari produktibitate handiago eta errentagarritasun hobea dakarkio; hau da, lanaren idealizazioak etekin ekonomiko handiago eskaintzen dio jabeari. Izan ere, testuinguru honetan, armadoreak edo patroiak, beste kasuetan, modu errazean lortzen dituzte lanaldi luzeak eta lanaren erritmo areago dezaten arrantzaleek; lanaren kontzeptua, dagoeneko, produkzio unitatearen errentagarritasuna lortzeko erabil daiteke. Armadoreak jakin badaki lan gehiago burutzen bada harrapaketak ugaritzeko probalitatea dagoela eta, beraz, etekin ekonomiko handiagoak lortu ahal izateko.

Arrantzaleek jakin badakite ere lan ordu askotan zehar aritzen badira armadoreak etekin ekonomiko ugariagoa lortuko duela, baina, azken finean, onurak banatzekotan zatika sistema edo portzentajea erabiltzen direla eta horrela arrantzaleek ere etekin handiagoa lor dezakete.

Modu berean, lanari buruzko diskurtsoak ontzian islatzen den hierarkizazio eta maila zatiketa justifikatzen ditu, tostarteko, gazte eta edadetuen sumisio, konformismo eta adostasunak lortuz. Honela ere, diskurtso honen bidez, arrantzale hauen protesta eta kritikak estaltzen dira eta produkzio bideen jabeagoen kontrola, etekin banaketa sistema eta kritika eza legezatzaten da sozialki. Lanaren balorapen baikorrak, arrantzaleen komunitatean, jendeak desberdintasuna eta hierarkizazio soziala mantsotasunez onar ditzala laguntzen du, honela ordena eta egitura soziala arrazionalizatzen da eta berarekin loturik agertzen diren desberdintasun ekonomikoak ontzi barnean. Ikuspuntu honetatik, arrantzontzi jabeek aise bultzatu dezakete honelako estrategia.

BIBLIOGRAFIA

- AIZPURU, M.; RIVERA, A. *Manual de historia social del trabajo*. Madrid: Siglo XXI, 1994.
- BATTERSBY, R.C. "Perspectivas para el desarrollo económico y social. ¿Son compatibles la pesca en alta mar y los pequeños barcos". In: *Congreso Mundial Vasco. El sector primario ante el siglo XXI*. Madrid: Aedos, 1988.

- BRAUDILLARD, J. *El espejo de la producción o la ilusión crítica del materialismo histórico*. Barcelona: Gedisa, 1973.
- DUTAILLY, L. "La seguridad de los tripulantes de los buques pesqueros, preocupación prioritaria de la Comisión de las Comunidades Europeas". En: *Actas del II Coloquio Internacional Seguridad y Condiciones de trabajo a bordo de los buques de pesca*. Bamio, CFOM, 1992.
- GOFFMAN, E. *Internados: Ensayo sobre la situación total de los enfermos mentales*. Buenos Aires: Amorrortu, 1972.
- MARÍN BENET, M. "Antropología del trabajo". En: AGUIRRE BAZTAN, A. *Diccionario temático de antropología*. Barcelona: Boixareu, 1993.
- SAN MARTÍN ARCE, R. *La Albufera y sus gentes*. Madrid: Akal, 1982.
- SÁNCHEZ FERNÁNDEZ, J. O. "Antropología de la pesca". En: AGUIRRE BAZTAN, A. *Diccionario temático de antropología*. Barcelona: Boixareu, 1993.